

Beatriz Chivite Ezkieta

Zeozer gaizki doa

Zeozer gaizki doa

Beatriz Chivite Ezkieta

Pamiela Poesia, 55

978-84-9172-308-0

2023. urtea - 96 or. - 15x21 cm

14,00 €

Hemendik ez ditut
erretzen diren basamortuak
ikusten
ezta jada sutan dauden
erromero sortak
hemen
landa-tximiniaren usaina daukan
kandela bat pizten dut gauean
hemendik
hegazkinak aineratzen ikusten ditut
eta berriro irekitzen diren dendak
hemendik ez ditut
erretzen diren basamortuak
ikusten
ezta jada sutan dauden
erromero sortak.



Filologia Txinatarrean eta Ekialdeko Artearen Historian lizentziaduna da. Txinan, Nepal, Indonesiako, Hong Kongen, Italian, Taiwanen eta Erresuma Batuan bizi izan da, orain Londreseko arkitektura unibertsitate batean lan egiten du nazioarteko proiektu-kudeatzaile gisa.

Hainbat poesia-sari irabazi ditu, eta gehienetan poesia sari horiei esker argitaratu ditu poema-bildumak: Iruñeko Udalaren Poesia Lehiaketa (2012), Ernestina Champourcin XXVI Poesia Lehiaketa (2014), Lauaxeta Poesia Lehiaketa (2015), Blas de Otero Bilbo Uria saria (2016). Paisaiek, bidaiek, desplazamenduek presentzia handia hartzen dute bere poemetan, sarritan barne-bidaia bat gorpuzteko begirada poetikoen emaitza direnak.

Argitaratutako poema liburuak: *Pekineko kea* (Pamiela, 2017); *Metro* (Arabako Foru Aldundia, 2014, *The Blue Line* izenburupean argitaratua ingelesez); *Biennale* (Erein, 2017); eta *Mugi/atu* (Pamiela, 2019).



Beatriz Chivite Ezkieta
(Iruñea, 1991)

